



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua  
2025/11/20herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

## INFORMAZIO-OHARRA

### DEIALDIA: GARBIKETAKO LANGILEEN BI LANPOSTU BETETZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA. NAO 80. zk., 2025/04/24koa

Proba psikoteknikoa 2025eko **ABENDUAREN 10ean** (asteazkena) egingen da, 10:00etan.

Proba **NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUAREN** egoitzan egingen da (Navarrería karrika 39). Itxaronaldia atondoan egingen da, ate nagusiaren ondoan.

#### PROBEN GARAPENA

Proba psikoteknikoa nortasunari eta/edo lan-gaitasunei buruzko bi galdetegiri erantzutean datza, eta plika-sistemaren bidez egingen da.

Probak egin aurretik, bakoitzaren jarraibide zehatzak irakurriko dira, eta behar bezala osatzeko behar diren gaiak azalduko dira.

#### PROFILA

##### 1. LANPOSTUAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIEN LABURPENA.

Hautatutako pertsonak bete beharreko funtzio nagusiak, besteak beste, honako hauek izanen dira: eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea, higienizazioa eta kontserbazioa bermatzeko teknika, tresna eta produktu egokiak hautatuz, laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera; eta, oro har, gaur egun edo etorkizunean E mailari dagozkion eta lanbideen bilakaeratik, maneiatzen diren erreminta eta tresnetatik eta antolamendu-sistemetan eta ematen diren zerbitzuen osieran egindako aldaketetatik ondoriozta daitezkeen funtzio guztiak, Berako Udalak egokitzat jotzen dituen zerbitzuko eta interes publikoko premien arabera.

##### 2. LANPOSTUAREN BEHARRAK ETA BALORAZIOAREN XEDEA: FAKTOREAK.

- **ERANTZUKIZUNA:** Laneko betebeharrak, zereginak eta arau orokorrak bere gain hartzeko eta bere jardueren ondorioak bere gain hartzeko aurretiko jarrera. Eguneroko lanean inplikatzeko eta hasten dena zehatz-mehatz amaitzea.
- **GIZARTE-TREBETASUNAK:** Pertsona mota desberdinekin harremanak izateko erraztasuna, tratu egokia, errespetuzkoa eta atsegina emanez. Gaitasun enpatikoa eta asertiboa.
- **EGONKORTASUN EMOZIONALA:** jarrera emozional orekatu eta egonkorra izateko gaitasuna. Pertsona lasaia, kontrolatua, baikorra, eguneroko zereginetan gerta daitezkeen tentsio handiagoko egoerei aurre egiten dakiena.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADAF EEC7 XKK2 2D9X

**INFORMAZIO-OHARRA: GARBIKETAKO 2 LANPOSTUEN DEIALDIKO PROBA PSIKOTEKNIKOA. - SEFYCU  
245484**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

2tik 1 orrialdea



ZIGILUA


Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua  
2025/11/20

### 3. ZUZENTZEKO, BAREMATZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK:


- **ZUZENKETA: NORTASUNA ETA LAN ARLOKO GAITASUNAK** atalean ez dago erantzun zuzen edo okerrik itemei, arau orokor gisa.

- **BAREMAZIOA:**

**Erantzukizun-faktorea** -5etik +5era bitarteko tartean haztatzen da.



**Trebetasun sozialen eta egonkortasun emozionalaren** faktoreak -3tik +3ra bitarteko tartean haztatzen dira.



- **KALIFIKAZIOA:**

Deialdiaren oinarrien arabera, balorazioa 0 eta 10 bitarteko tartean ezarriko da. Puntuazioa kalkulatzeko, profilak jasotzen dituen ezaugarri edo faktore guztiak hartuko dira oinarritzat, eraldatutako puntuazioa finkatzen duen profil profesionalaren eskakizun-mugetan.

*Puntuazioa lortzeko, formula hau erabiliko da izangai guztientzat:*

$$\text{Kalifikazioa} = \frac{(\text{Subjektuaren puntuak} * +11) \times (10)}{22}$$

*Subjektuaren puntuak:  $\sum P$  Profilaren faktoretik eraldatuak.*

*Deialdiak zehazten duen puntuazio-tartea: 0-10.*

*Maila eraldatuak: -11tik +11ra. Tarteari buruzko zabalera Globala = 22.*



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADAP EEC7 XKK2 2D9X

**INFORMAZIO-OHARRA: GARBIKETAKO 2 LANPOSTUEN DEIALDIKO PROBA PSIKOTEKNIKOA. - SEFYCU 245484**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

2tik 2 orrialdea